



Bolunzar

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa: Bolúnsar

“... la casería molino titulado Bolunzar...situada en la barriada de Sarria jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con su zaguan, huerta, antepara y estalde doscientos ochenta y nueve estados equivalentes a mil noventa y nueve metros cuadrados superficiales de cabida, y la que se compone de piso bajo, con una vivienda a manera de entresuelo y de camarote...”
DJE, 2/88 or. (1867)



43° 11' 6"

2° 36' 2"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Bolunzar errotaren inguruko lehen aipu dokumentala 1704koa da, eta Bizkaiko su-errodetan Sarria kofradiaren baitan agertzen den baserri / errota bati erreferentzia egiten dio: *Bolunzar*. Bigarren su-erroldan (1745ean), agiri guztietan *V* hizkiaz idatzita agertu arren, *B* hizkiaz idatzita ageri zaigu: *Bolúnzar* (1859, BUA, Nmcr.), *Bolunzar* (1867, DJE, 2/ 88. or.) eta 1967ko azken Udal-erroldan, *Bolunzar* (BUA, CE.).

Etxeari erreparatuz gero, nahiz eta elkarren ondoko bi eraikin moduan agertu bakoitza berezko bi isurkitako teilatu eta guzti, bistan da eraikin nagusia zein den, haren bi ertzetako harlanduek ondo frogatzen duten moduan. Ondokoa

biltegia izan zen, eta harlanduak bakarrik alde batean ditu, beranduago egin zutenaren seinale. Errota izandako eraikinak XIX. mende inguruan handitutako egitura garbi bat du: hiru solairu eta baoak, hiru ardatzetan antolatuta, erdikoa nabarmenena izanik. Horregatik dugu behekoan sarrerako atea, gainean balkoia, eta ganbaran, balkoi luzea. Balkoiak horizontaltasuna ematen dio, eta bertikaltasuna hautsi. XX. mendeko berriztatze-lanetan harlangaitzezko hormak desestali zizkioten. Azpimarratzekoa da ateetako eta leihoetako buruak egurrezkoak direla, jatorrian etxe aberatsa ez izanaren seinale.

toponimia

Bolu hitzak errota esan gura zuen euskaraz baina gaur egun ez da erabiltzen leku izenetatik kanpo. Gaur egun Errotazar esango genuke. Hitz hau, hala ere, oso erabilia izan zen eta hor dugu, esaterako, Bolibar “errotaren ibarra” edo Bolunburu, Markina-Xemiengo baserria eta Zallako dorretxe eta errota. Hitz latinetik hartu zuen euskarak, gaztelaniak bezala: *molinum* > *molinu* > *bolinu* > *bolu*. Konposantuetan ageri de -n (Bolunzarra, Bolunburu) antzinako -n-ren oihartzuna da. Euskaraz -n- hori desagertu den hitzetan berragertzen da konposatuetan, eta gazta, katea eta kanpaia esan arren, gaztanbera, katenbegi eta kanpandorre esaten dugu. Izenaren osagaiak argiak dira bolu hitza, esan bezala konposatuetan bolun bihurtzen dena “errota” eta zahar: Errotazaharra. Bolunbarri sarreran adierazi dugun bezala (Ikus Bolunbarri) latineko *molinum*-etik hartu genuen euskaldunok bolu hitza bana gero alde batera utzi eta errota (latineko rota-etik, gaztelaniaz rueda) erabiltzen dugu mendebaldean (beste hainbat lekutan eihera erabiltzen da).